

Sartzeko baldintzak eta onartzeko irizpideak

Tituluan sartzeko bideak eta baldintzak

Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako Gradu ikasketak edozein pertsona kualifikatuk egin ditzake, adin, sexu, arraza, erlijio, desgaitasun, sexu-orientazio, jatorri edo beste edozein arrazoigatik diskriminatu gabe.

Gradu horretan sartzeko, maiatzaren 12ko EDU/124/2011 Aginduan ezarritakoa beteko da. Agindu horrek aldatu egiten du maiatzaren 29ko EDU/1434/2009 Agindua, azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren eranskinak eguneratzen dituena (1892/2008 Errege Dekretua, Gradu unibertsitateko ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan onartzeko prozedurak arautzen dituena).

Indarrean dagoen araudiaren arabera, honako kasu hauetakoren batean daudenak sartu ahal izango dira ikasketa horietara:

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 37. eta 50.2 artikuluetan aipatzen den batxiler titulua dutenak.
2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 38.5 artikuluan aurreikusitako Europar Batasuneko estatu kideetako edo Espainiarekin gai horri buruz nazioarteko hitzarmenak sinatu dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetako ikasleak, beren herrialdean unibertsitatean sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.
3. Atzerriko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, jatorrizko titulutik Espainiako batxiler titulura homologatzeko eskaera egin ondoren.
4. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 44., 53. eta 65. artikuluetan aipatzen diren Lanbide Heziketako eta Irakaskuntza Artistikoetako goi mailako teknikari tituluak dituztenak edo Kirol ikasketetako Goi Mailako Kirol Teknikari ikasketak dituztenak.
5. Hogeita bost urtetik gorakoak, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoak.
6. Laneko esperientzia edo esperientzia profesionala egiaztatzen dutenak, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 42.4 artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez, aurrekoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Legeak emandako idazketan.
7. Berrogeita bost urtetik gorakoak, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 42.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrekoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Legeak emandako idazketan.

Era berean, honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek ere egin ahal izango dituzte gradu ikasketak:

- Gradu unibertsitateko titulu ofiziala edo baliokidea dutenek.

- Unibertsitateko ikasketen aurreko antolamenduko titulua edo baliokidea dutenek (unibertsitateko diplomadun, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko, lizentziadun, arkitekto edo ingeniari titulu ofiziala dutenek).
- Atzerriko unibertsitateko ikasketa partzialak egin dituztenek edo, ikasketak amaituta, homologazioa Espainian lortu ez eta Espainiako unibertsitate batean ikasketak jarraitu nahi dituztenek. Kasu horretan, ezinbestekoa izango da dagokion unibertsitateak gutxienez 30 kreditu aitortu izana.

Onartzeko irizpideak

Fakultateak Nazioarteko Harremanetako Gradurako onarpen eta hautaketa proba bat ezarri du. Onarpeneko azterketaren helburua honako hauek ebaluatzea da: kultura orokorreko ezagutzak, gertaera globalekiko interesa, idatzizko komunikazio mailak gaztelaniaz eta ingelesez, heldutasuna, etab. Halaber, berariazko probak egingo dira C1 maila ziurtagiri bidez (Cambridge, TOEFL, IELTS) egiaztatu ezin duten ikasleen ingeles maila ebaluatzeko.

Sartzeko prozedura bat definitu da, 1. puntuari deskribatutako informazio eta orientazio ekintzetan azaltzen dena, eta honako hau da:

Sartzeko prozesua Idazkaritza Orokorrean egingo da. Urrats hauek jarraitu beharko dira:

1. Onarpen eskaera nahitaezko epean betetzea, eta eskatzen den dokumentazioa aurkeztea.
2. Hautaketa eta emaitzen jakinarazpena: eskaera jaso eta hamabost eguneko epean, hautagaiak sartzeko eskaeraren erantzun ofiziala jasoko du. Unibertsitateak eskaera guztiei erantzungo die.
3. Plaza gordetzea: onartutako hautagaiak plaza gordeko dute. Onarpen gutunean bertan adieraziko zaie tokia gordetzeko zer prozedura jarraitu.
4. Matrikula: onartutako hautagaiak etxean jasoko dute matrikula egiteko dokumentazioa, zer dokumentazio ekarri behar duten eta matrikula egiteko datak zeintzuk diren azalduta.